

Fatima Djara, Munduko Medikuak elkarteko kidea

«Ablazioak min ematen badigu, utz dezagun alde batera tradizioaren zati hori»

Fatima Djarak ez ditu saltzeko bere herriko, Ginea Bissauko, ohiturak. Denari eusteko prest ez dago, ordea. Ablazioa desagerrarazteko borrokan dabil, batik bat Nafarroan. Kontu handiz ari da lanean, ez du uste mutilazio genitala egiten dutenak gaizkiletzat hartu behar direnik.



Reyes Ilintxeta

@ReyesIlintxeta

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Nolako izan zen zure haurtzaroa?

Aita mandinga etniakoa zen eta musulmana. Ama hegoaldean dagoen Catió hirikoa eta kristaua. Bissau hiriburuan elkartu eta han sortu zuten familia. Amaren aldetik sei anai-arreba izan nituen eta aitaren aldetik asko ginen, baina egun soilik bost gelditzen gara. Oso familia xumea zen gurea. Aita arrantzalea zen eta nik 7 urte nituenean itsasoan hil zen. Osaba batekin gelditu nintzen eta barnetegi batera eraman ninduen ikastera. Ginea Bissau herrialde sozialisten laguntza handia izan zuen. Adibidez, askatze borrokaldian hil zirenen seme-alabentzako ikastetxeak ireki zituzten. Hara joateko aukera izan nuen. Ondoren, Kuban izan nintzen 14 urtetatik Herri-Lan ingeniari zeta ikasketak amaitu arte. Afrikako jende asko ibili ginen urte haietan: Sahara, Mozambique, Angola, Sao Tome, Cabo Verde, Etiopia, Sudan... Ikasketak amaitutakoan Ginea-ira itzuli eta 1991tik 2004ra Herri-Lan Ministerioan egin nuen lan.

Zergatik atera zinen Ginea Bissautik 2004an?

2003an Ministerioak errepideak mantentzeko hitzarmen bat sinatu zuen Bel-

gikarekin. Hara joan nintzen ikastaro bat egitera eta han ezagutu nuen ugaltze tratamendua egiten lagundu zidan neska. 1992tik ezkondua nintzen eta seme-alabak nahi genituen ekarri, baina ezin. Dena abian jarri genuen, baina nire senarrak Bruselara tratamenduan parte hartzera joan behar zuenean, auto istripua izan zuen Ginean eta hil zen. Kolpe latza izan zen. Mundua goitik behera etorri zitzaidan. Etxera itzuli eta dolu-aldia amaitzean alde egitea erabaki nuen, ezin nuelako gehiago. Ertzeko hurren nengo. Bruselan urtebete eman ondoren amak esan zidan Bilbon bizi den ahizparengana joateko. Eta hori egin nuen. Ahizpari bere haurrekin laguntzen nion eta hasi nintzen emakume afrikarren mugimenduak ezagutzen. Munduko Emakumeak elkartarekin hasi nintzen lanean. 2008an Munduko Medikuak erakundeak lan eskaintza bat atera zuen, aurkeztu nintzen, eta Iruñera etortzeko proposamena egin zidaten. Hemen nabil orain, 10 urteko semetxoarekin.

Zertan datza zure lana Munduko Medikuak elkartean?

Emakumeen mutilazio genitalaren prebentzio programa bateko arduraduna

naiz. Nafarroan bizi den komunitate afrikarra sentsibilizatu eta formatu nahi dugu. Askok pairatu dute edo gertutik ezagutzen dute, baina ez dute txartzat hartzen. Emakume askok ez dute onartzen bai fisikoki bai psikologikoki kalteak izan direnik. Izan duten heziketatik pentsatzen dute emakumearentzat ona dela mina onartzea, negarrik ez egitea, horretaz ez hitz egitea. Bitartekari izanda eta ablazioa pairatu dugun emakumeak izanda, gure lana bada mutilazioak zer eragiten digun erakustea. Guk hori bera pasa dugu, gauza berdinak entzun ditugu, eta esan nahi diegu dena gezurretako mito bat dela. Errua ez diegu gure gurasoei, gure zaharrei, bota nahi, baina aldaketa soziala eragin behar dugu. Mutilazioak min ematen badigu, tradizioaren zati hori alde batera utz dezakegu, eta beste guztiarekin jarraituko dugu, ohitura eder eta denontzako onuragarria izan dadila.

Zein zerbitzu eskaintzen dituzue?

Laguntza zerbitzua ematen diegu emakumei medikuarengana joateko, adibidez. Gizonekin ere lan asko egiten dugu. Askotan ez dakite zer den eta ablazioa gizonen zirkunzizioarekin alderatzen



Fatima Djara Sani

1968, Ginea Bissau

14 urterekin Kubara joan zen ikastera. Herri-Lan ingeniartzan lizentziatu ondoren, Ginea Bissaun eta Bruselan bizi eta lan egin zuen. 2005ean, alargun gelditutakoan, Bilbora etorri zen eta handik Nafarroara. Egun, emakumeen mutilazio genitalaren aurkako aktibista da. Munduko Medikuek elkarteko bitartekari dihardu, giza integrazioarako goi teknikaria, Nafarroako Berdintasunerako Kontseiluko kidea eta Flor de Africa emakumeen elkarteko sortzailea da. 4 urte zituela ablazioa egin zioten eta bere esperientzia *Indomable* liburuan bildu zuen 2015ean. 10 urteko Asier mutikoaren ama da.

dute, baina ez du batere zerikusirik. Emakumeari klitoria kentzen diote, haragia, eta ez azal pusketa bat. Tailetan, baginaren erreproduzio bidez erakusten diegu zer den mutilazioa eta izutu egiten dira.

Afrikarrekin lan egiten duten profesionalei formakuntza ematen diegu. Sarri hemengo medikuek, irakasleek eta gizarte laguntzaileek ez dakite nola heldu gaiari, ez dituztelako afrikarren ohiturak eta pentsamoldeak ezagutzen. Profesionalek besteen lekuan jarri behar dute eta gauzak nola esan pentsatu, aurrean duena iraindu gabe.

Zeintzuk izan dira aurrerapauso nabarmenak Nafarroan?

2013ko uztailean prebentzio protokoloa onartu zen eta horri esker bideratzen dira formakuntza saio guztiak. Horrekin batera, mutilazioa pairatzeko arriskuan dauden nesken familiek agiri bat sinatu behar dute haien jatorrizko herrietara oporretara joan aurretik, ablazioa eginen ez dietela hitzemanen. Itzulitakoan, medikuak azterketa egiten die neskei eta mutilaziorik izan bada gizarte zerbitzuei eta adingabeen fiskaltzari berri ematen die. Gurasoek 6 eta 12 urte arteko kartzela zigorrak jaso ditzakete. Oso argudio indartsua da, semea edo alaba kartzelan sartuz gero nork mantenduko du familia hemen eta Afrikara dirua bidali? Horrez gain, familiei erakusten diegu gaia nola argudiatu Afrikan, hango senitartekoen aurrean, baina errespetua galdu gabe.

Guk halako muturreko egoeretara, zigor penalera, ez dugu iritsi nahi, ablazioa egiten dutenak ez direlako gaizkileak, gure ustez. Ama guztiak onena nahi dute beren alabentzat, baina ez dugu ahaztu behar gizarte patriarkal eta oso tradizionalaz ari garela. Ezin ditugu pertsona horiek gure ikuspuntutik soilik epaitu. Oso ongi dago hori dena kode penalean agertzea, baina gure filosofia, gure estrategia, emaitza horiek saihes-teko alde aurretik lan egitea da.

Afrikarrek nola hartzen dute zuek esandakoa?

2008an hasi ginenetik hona, Nafarroan, aurrerapen nabarmena ikusten da. Hasierean oso zaila zen afrikar komunitatearengana iristea. Antolatzen genituen saioetara ez zirela etortzen ikusita, estrategia aldatzea erabaki genuen. Osa-

Gaizkileak

“Hemengo jendeari informazioa ematen diegu, bestela izugarrikeria baino ez da ikusten eta pentsatzen dute gu, beltzok, gaizkile basatiak garela. Ez da inor kriminalizatu behar. Milaka urte dituen ohitura odoltsua ezin da egun batetik bestera desagerrarazi”.

Tradizioa bai, ablazioa ez

“Ablazioak inimiziazko errituetatik duena ederra da. Emakumeak elkarrekin basora joaten dira jai bat egitera eta han abestu eta dantzatu egiten dute. Adinekoek gazteei azaltzen diete zer den emakumea izatea, nola integratu taldean, nola gorde balore kulturalak... Horri eusten ahal zaio ebaketa mingarria bazter utzita. Tradizioak moldatu behar ditugu”.

sun sexual eta erreproduktiboa lantzen hasi ginen haien auzoetan eta elkarguneetan, gizarte zerbitzuen laguntzarekin. Ez zuten hitz egin nahi. Hasierean pentsatzen zuten erotuta nengoela mutilazioaz hitz egiten nuelako eta kalera bidaltzen ninduten. Orain, aldiz, horretaz mintzatu nahi duzula edo dokumental bat egin nahi duzula esaten baduzu emakume guztiak nahi dute parte hartu eta haien ahotsa jarri mutilazioa bukatzeko. Hemen, orain, gizon afrikarrek mutilazioaz hitz egiten dute. Askok eta askok badakite zer den eta zer ondorio dakartzan. Oraindik lan handia dago egiteko, baina aurrera goaz.



Emakume afrikarrek zer pentsatzen dute ablazioaren kalteez?

Kalteak asko eta ikaragarriak dira, bai osasunaren aldetik, baita psikologikoki ere. Ondorio fisikoak mutilazio motaren arabera izaten dira. Lehen motako ablazioa bada, hau da, klitoriaren prepuzioa moztzen badute, emakume ugari ez du kaltegarritzat jotzen, ez duelako plazer sexuala ezagutzen. Beste arazo batzuk, fistulak edo erditze momentuan izan daitezkeenak, sarri ez dira ablazioaren ondorioztat jotzen. Batzuek arazo fisiko horiek superstizioekin lotzen dituzte. Uste dute gaizki daudela budu egin dietelako, adibidez. Gainera, gaiz-



Djamila Maiga maliarra eta Fatima Djara Sani Ginea Bissaukoa, Munduko Medikuek erakundeko Nafarroako teknikariak. "Guk halako muturreko egoeretara, zigor penalera, ez dugu iritsi nahi, ablazioa egiten dutenak ez direlako gaizkileak, gure ustez".

ki ikusia dago sufrimendua erakustea. Emakume batek horregatik sufritzen badu, triste badago, depresioan erortzen bada, jendeak erotzat hartzen du eta familiak baztertzen du.

Emakume askok osasun mentaleko arazo larriak dituzte.

Zein da ablazioaren helburua?

Gure gizarte eredu patriarkalean ablazioa emakumea menderatzeko modu bat da, bere sexualitatea kontrolatzeko modu bat. Nork dio, adibidez, hemengo emakume zuriak edo mutilatuta ez dauden beltzak ez direla garbiak? Nork dio klitoria neurritz kanpo haz daiteke-

la zakil bihurtu arte? Nork dio mutilatuta ez dagoen emakumeak ezin duela birjina iritsi ezkontzara? Birjintasuna eta mutilazioa ez doaz lotuta. Ni mutilatua naiz eta ez nintzen ezkontzara birjina iritsi, ez nuelako nahi izan. Eta kito. Zorionez, pentsatzeko modu hau azkar ari da zabaltzen baita Afrikan ere, eta oraingo gazteek ez diote garbitasunari lehen bezalako garrantzirik ematen.

Hemengo gizartea nola ikusten duzu?

Iruñea gustatzen zait, txikia delako. Harrera ona egiten dio kanpokoari, baina jendea hotza da. Ez dut lehorra esan nahi, baina zaila da lagunak egitea. He-

rri txikietan integrazioa errazagoa da, afrikarrak harremanetan gaudelako eta jendea ezagutzea ere errazagoa delako.

Nafarroa, oro har, oso kontserbado-rea da. Guk ahaleginak egiten ditugu integratzeko eta elkarbizitza sustatzeko, baina ez da erraza. Orain adibidez, Flor de Africa gure elkarreartzat egoitza bila gabiltza, baina ezinezkoa da. Emakume beltzei izugarritzko prezioak eskatzen dizkigute lokalak alokatzeagatik. Horregatik emakume afrikarrok erakundeei eskatzen diegu laguntza. Espazio bat nahi dugu gure kultura ezagutzera emateko, Afrika positiboan eta mundu guztiari irekian erakusteko.

Euskara izan daiteke integratzeko laguntza bat?

Noski. Gustatuko litzaidake euskara ikastea, eta nire semeak ere bai, baina erraztasunik ez dago. Guk ezin diegu etxeko lanekin lagundu eta ikastetxeetan, adibidez, ikastordu batzuk jarriko balituzte irakasle batzuekin errazagoa litzateke. Gure seme-alabak hemengoak dira eta integra daitezela nahi dugu. Horretarako modu onena da hemengo bi hizkuntzak ikastea.

Zuk zenbat hizkuntza dakizkizu?

Portuges, frantsesa, gaztelania eta Afrikako hizkuntza batzuk: aitaren aldetik mandinga, amarenetik pepel-a eta beste zenbait hizkuntzatan moldatzen naiz.

Indomable liburua kaleratu duzu. Zein da helburua?

Jendeari kontatu nahi nion nola bizi garen emakume afrikarrak. Ablazioa oso esperientzia mingarria izan da niretzat. 4 urte nituen, baina gogoratzen dut ebaketa egin zidaten eguna, eta inguruko emakumeek gauza bera pairatzen dutenean dena gogorarazten dizute berriro. Ahizpa nagusia eta biok esnatu gintuzten eta esan ziguten guretzako egun handia izanen zela. Amonaren etxera eraman gintuzten eta han festa handi bat egin zuten. Ebaketa egin ziguten eta gero zauria sendatu. Oso mingarria izan zen eta hurrengo egunak ere bai. Txarrena pixa egitea zen, erre egiten baitzuen.

Liburua egitea proposatu zidatenean oso gogorra izan zen niretzat, baina onartu nuen. Gorka Moreno kazetariak izugarri lagundu zidan nire sentipenak, oinazea eta errebeldia adierazten.

Zein asmo duzu etorkizunerako?

Etorkizunean Ginean ere lan egin nahi nuke. Dunia Musso (Emakumeen mundua) elkarteak dugu hemen eta Ginean aldi berean lanean. Otsailaren 6an Ablazioaren Aurkako Eguna da eta bost kilometroko lasterketa antolatuta nahi dugu horretaz ozenki hitz egiteko, ezer ezkutatu gabe. Enpresen eta jendearen laguntza behar dugu. Han gazte talde batekin ari gara lanean, formazioaren formakuntza ikastaroak egiten ari gara haiekin eta oso ongi doa. Lasterketaren helburua da gizarteak ikustea jende gaztea mutilazioaren aurka dagoela. ■

11itzulpen

EUSKARATIK INGELESERA ZUZEN INGELESERATIK EUSKARARA ZUZEN

EUSKARA | CASTELLANO | FRANÇAIS | ENGLISH

Euskal Herrian gehien erabiltzen diren hizkuntzen arteko itzulpenak eta zuzenketak egiten ditu 11itzulpenek. Eskarmentu eta prestakuntza handiko gure itzultzaile eta zuzentzaile taldeak eta gure lan-metodologiak itzulpenen kalitatearik gorena bermatzen dute.

» Testu kalitatea bermatzen dugu

» Lana eskatutako epemugan eta formatuan entregatzen dugu

» Terminologia zehatza eta koherentea ziurtatzen dizugu

www.11itzulpen.eus

info@11itzulpen.eus

Skype: 11itzulpen

☎ (34) 699 433 121